



"Elkar Zainduz" prozesua zaintza-eredu berri bat

HERRIA
"Elkar Zainduz"
prozesua: lehen topaketa
irekia

4

EKINTZA ERAGILEAK

9

IRITZIA

11

Berdintasunera bidean egindako ekintzak

Astigarragako Emakumeon Etxeak webgune bat sortu du eta Gizonak berdintasunerantz saioak egingo dira urritik otsailera.

Emakumeon Etxeko webguneari dagokionez, komunikazioa hobetu eta pertsona gehiagorengana iritsi ahal izatea dira helburuak; astigarragakoemakumeonetxea.eus webgunearen bidez, Emakumeon Etxean egiten dutenari buruzko informazioa zabaldu eta Astigarragako Emakumeon Etxea ezagutzera emango dute. Honako atalak ditu atari berriak: hasiera, nor gara, eskaintza, zerbitzuak, agenda eta kontaktuak.

Gizonak berdintasunerantz da urritik otsailera hilean behin egingo diren bost saioen goiburua. Saio horiek berdintasunaren arloan urratsak emateko gizonen inplikazio beharrari erantzuten diote, Astigarragako IV. Berdintasun Planean ondorioztatu zen bezala. Hiruki Larroxako Egoitz Albiokel gidatuko ditu saioak, eta hainbat gogoeta eragin nahi dira: gizontasunaz, maskulinitateaz, indarkeriaz... eta erronkak eta konpromisoak zehaztu.

Saioak urriaren 15ean, azaroaren 19an, abenduaren 17an, urtarrilaren 21ean eta otsailaren 18an izango dira, Erribera kultur gunean, 17:30etik 20:00etara.



2

En marcha el Centro de Día

El Servicio de Atención Diurna de Astigarraga se puso en marcha el pasado 8 de septiembre. Se trata de un servicio dirigido a personas mayores en riesgo de dependencia y en situación de dependencia de primer grado que tiene como objetivo promover las capacidades cognitivas, funcionales y sociales, así como mejorar su desarrollo y calidad de vida, mejorando su participación activa, su vida independiente y su autonomía en la comunidad.

El Centro de Día ofrece, entre otros, los siguientes servicios:

- Consejos para organizar el día a día
- Ejercicios e información para la salud física y cognitiva
- Fomento de las relaciones de diálogo entre los participantes
- Trabajar las relaciones sociales e integrarse en las actividades de la localidad
- Consejos para mejorar el bienestar emocional

El servicio se presta en la Asociación Galtzaur los lunes, miércoles y jueves de 10:00 a 13:00 horas.

Es un servicio gratuito. En este momento hay 6 usuarios, pero todavía hay opción de apuntarse en el servicio si estás interesado, para ello, ponte en contacto con los Servicios Sociales del Ayuntamiento, llamando al teléfono 943 33 52 32.

Los y las astigartarras, beneficiarios del servicio Radio Taxi Donostia


El taxista de Astigarraga Fernando Pereira ha formalizado un convenio con la asociación Radio Taxi Donostia para ofrecer un servicio de radio taxi en el municipio. El servicio ya está en marcha.

Mediante este acuerdo se ha logrado que los y las astigartarras puedan utilizar este servicio de radio taxi para solicitar servicios, realizar reservas, etc. Los servicios serán prestados de forma preferente por el taxista de la localidad y si no puede prestar el servicio lo hará la red de taxistas de Donostia Radio Taxi.

- **Servicio de taxi de Astigarraga 622 22 23 43**
- **Radio Taxi Donostia 943 46 46 46**
info@taxidonosti.com | www.taxidonosti.com



3



1

Dolareak proiektua

Dolareak proiektuari hasiera eman zaio Astigarragan. Peio Martikorena Fundazioak, Astigarragako Udalak eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko hiru lanbide-heziketa ikastetxeek elkarlanean sustatu dute eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ko-finantzatu-tako proiektua da.

Ekimen honek helburu bikoitza du: alde batetik, dolare zaharren muntaketa eta zaharbertitza; eta bestetik, zurgintza lanbide tradizionalak gazteei transmititzea. Sagarra eta sagardogintzaren baitan garatutako ondarearen berreskuratze eta balioan jartzeko lehen urratsa da proiektua.

Hamabost egunez, lanbide heziketako zurgintza arloko 18 ikasleek XVII. mendeko bi dolare muntatu eta zaharbertitzeko saioan parte hartuko dute. Formazioa ikastetxeetako irakasleek gidatuko dute, eta piezen muntaketaz gain inbentarioak egingo dituzte, ondare berezi honen balioa berreskuratzeke.



4



5

Aurrera jarraitzen dute argiteria publikoa hobetzeko lanek

Udazken honetan argiteria aldatzen jarraituko du Udalak.

Alde batetik, Iretza tabernaren aurrean dauden bidegorri eta espaloian sei farola berri jarriko dira, bakoitzean bi luminariarekin. Bide batez, espaloia eta bidegorria argizatzearekin batera errepidea ere argizatuko da.

Bestetik, Udalak azken urteetan egin duen moduan, aurten ere, diru partida bat aurrekusi du herriko argiteria LED teknologiarantz aldatzeko. Aurten industriaguneetako argiteriarekin hasiko dira, zehazki, Zamoka-Txalaka industrialdean. Horrekin, udalerriko argiteriaren %80a LED teknologiarantz aldatuta geratuko litzateke.

Orain arte egindako jardueren artean, azpimarratzekoa da autobus geltoki guztien argiztapena.

“Gure herriko señorak” erakusketa ikusgai Emakumeon Etxean

Andrea Loinaz Maizcurrena eta Eider Ugarte Rodriguez astigartarrek “Astigarragako emakumeen ekarpenak eta bizitza-istorioak (1940-2000)” ikerketa gauzatu dute, Udaleko berdintasun sailak 2023an argitaratu zuen genero ikerketa-bekarekin, Astigarragako emakumeen memoria historikoa berreskuratzeke, balioan jartzeko eta herritarren eskura jartzeko xedea duena.

Ikerketa horretan oinarrituta Miren eta Uxue Bereziartua Lonbide ahizpekin *Gure herriko señorak* erakusketa sortu dute, iaz Hernanin aurkeztutako proiektuaren bidetik.

Erakusketa urriaren 30etik azaroaren 14ra ikusgai egongo da Astigarragako Emakumeon Etxean eta ordutegi honetan: astelehenean, astearte eta ostiralean 9:00etatik 15:00era eta ostegunetan 13:00etik 19:00era.

Erakusketaren irekiera urriaren 28an, 18:30ean, Emakumeon Etxean izango da.



6



7

Udalak Haurreskolak Partzuergoari Nabarra Oñatz 5 lokala (Astitxiki 2) lagako dio

Azken ikasturteetan, Kiriketa haurreskolako plaza guztiak bete egin izan dira, lehen hilabeteetan. Ondorioz, hainbat familia plazarik gabe geratu izan da. Gainera, azken urteotan herrian izaten ari den jaiotza-tasa altuagatik, batetik, eta haurreskolen doakotasunagatik, bestetik, matrikulazio kopuruak gora egin du, nabarmen.

Aipatutakoa kontuan hartuta eta arazo horri irtenbidea emateko asmoz, elkarlanean aritu dira azken hilabeteetan Udala eta Haurreskolak Partzuergoa. Hori horrela, Udalak ahalegin berezia egin du Gizarte Ongizate saileko udal bulegoetako lanak hilabete batzuk atzeratzeko eta datorren ikasturtean, 2025-26 ikasturtean, Nabarra Oñatz 5 lokala Haurreskolak Partzuergoari uzteko.

Horretarako, Udalak hainbat egokitzapen egin ditu lokal horretan. Lanak amaituta daude da-goeneko eta Hezkuntza Sailak instalazioak ikuskatu eta oniritzia ematea falta da.



Azaroaren 27an izango da “Elkar Zainduz” prozesuko lehen topaketa irekia

Irailean aurkeztutako prozesuak zaintza-eredu berri baten inguruan hausnartu eta herrian zaintza-sare bat eratzea ditu helburu

Azken urteotan gizarte zain-tzaren krisi sakon batean murgilduta dago. Herritarrok ditugun zaintza-beharrei erantzuteko ezintasuna nabaria da. Eta horrekin batera, emakumezkoengan erortzen dira zaintza arduren gehiengoa. Astigarragako kasuan gainera, biztanleriaren zahartze gero eta handiagoari jaiotza-tasa altua gehitu behar zaio.

Horri erantzuteko abiatu zen irailean “Elkar Zainduz” prozesua, **bi helburu nagusirekin**: batetik, zaintzaren inguruan hausnarketa eragitea; eta bestetik, herrian zaintza-sare bat eratzea, zaintza premiei modu integralean erantzuteko. Prozesu honetan arreta berezia bi populazio-segmentuetan jarriko da: adin txikikoak eta helduak/ adineko pertsonak.

Pertsonen bizi kalitatea hobetzeaz gain, arlo komunitarioa indartzea da asmoa, zaintzak erantzukizun partekatua izan behar duela agerian utzita.

“Elkar zainduz” prozesuak zaintzaren inguruan zeresana duten herritarrek, eragile sozialak, erakunde publikoak eta entitateak artikulatu nahi ditu, eta horretarako hainbat espazio sortuko dira.

Diagnostikoa osatzen

Herrian zaintzaren inguruan dagoen egoera, berezitasunak eta beharrak hobeto ezagutzeko asmoz diagnostiko bat eratzeko datuak bildu dira, eta ondoren herritarren ekarpenekin osatuko da; eta zaintza-mahai bat artikulatu da, herriko

hainbat ordezkari osatzen dutena.

Astigarragaren argazkia osatzeko, eta herritarrentzako parte-hartzeko aukera ezberdinak proposatu dira.

Alde batetik, galdetegi bat osatu zen paperean nahiz online betetzeko aukerarekin. Hainbat herritarrek bete zuten galdetegia, eta horietan ateratako datuak eta informazioa erabiliko da, beste hainbat tresnaren artean, diagnostikoa osatzeko.

Azaroaren 27an, lehen topaketa irekia

Bestetik, herritar guztiak parte hartzeko aukera izango duten hiru topaketa antolatu dira. Lehenengoa datorren hilean izango da, azaroaren 27an, osteguna, 17:30ean, Erri-


A * elkar zainduz

CUIDADOS

bera kulturgunean. Bilkuraren helburua izango da abiapuntu komun bat ezarri eta herri mailako beharrak, elkarlan-aukerak, ahuleziak eta indarguneak indertzeko balioko du, diagnostikoa osatuz.

Ondorengo topaketa biak otsailaren 5ean eta martxoaren 26an izango dira, hurrenez hurren. Otsaileko bileran inguruko esperientzia eta praktika onetan jarriko da arreta eta martxoan ekintza-plan bat eta zaintza-sarea eratzeke lehen pausuak emango dira

Topaketetarako haur zaintza zerbitzua eskainiko da topaketa baino astebete lehenago eskatuta (berdintasuna@astigarraga.eus) / 638 206 586.



El 27 de noviembre tendrá lugar el primer encuentro abierto del proceso “Elkar Zainduz” (cuidados)

El proceso presentado en septiembre tiene dos objetivos: por un lado, generar una reflexión en torno al cuidado; y por otro, crear una red de cuidados en el pueblo para responder a las necesidades de forma integral.

En este proceso se prestará especial atención a dos segmentos de población: menores de edad y adultos/personas mayores.

El proceso “Cuidados” pretende articular a la ciudadanía, agentes sociales, instituciones públicas y entidades que tienen algo que decir sobre el cuidado, y para ello se crearán diferentes espacios.

Con el fin de conocer mejor la situación, peculiaridades y necesidades sobre los cuidados en la localidad se han recopilado datos para la elaboración de un diagnóstico que posteriormente se completará con las aportaciones de las y los astigarras; y se ha articulado una mesa de cuidados, integrada por varios representantes de la localidad.

Las personas interesadas tendrán diferentes opciones de participación durante el proceso: han podido rellenar un cuestionario. Además, se celebrarán varios encuentros abiertos durante los próximos meses, y el primero de ellos será el 27 de noviembre. Habrá otros dos encuentros el 5 de febrero y el 26 de marzo. Todo ellos se celebrarán a las 17:30 y en el centro cultural Erribera.



“Argi geneukan toki irekia izan behar zela herritarrentzat, baina baloreak ere argi geneuzkan: euskara, gai sozialak eta emakumeen egoera”

Zipotza, 40 urtez

Herriari bizia emateko helburuarekin sortu zen Zipotza Elkarte 1985ean; herrigintzan jardun du ordutik hona, herriko eragileen bilgune izateaz gain, kultur eskaintza oparoa eskaini du 40 urtean.

1985ean sortu zen Zipotza elkarte, Astigarragari bizia emateko helburuarekin. “Gogo handia” zegoen kultur mailan gauzak egiteko, eta antolatuta ahal izateko lokal falta zegoen herrian. Hori dela eta, dozenaka herritarren ekarpen ekonomikoari eta lanerako gogoari esker, gaur egun Zipotza kokatzen den lokala erosi zuten.

Auzolanean prestatu zuten taberna eta biltokia izango zena: paretak bota, eraiki, sukaldea eta altzariak prestatu... Hainbat asteburu eta jai egunetan lan egin zuten herritarrek, “ilusioz”.

Zipotzako hasierako urteetan ibili zirenek honela gogoratzen dute: “argi geneukan toki irekia izan behar zela herritarrentzat, baina baloreak ere argi geneuzkan: euskara, gai sozialak eta emakumeen egoera”. Gainera, herrian elkarte bakarra zen emakumeek sartu ahal zutena.

Horrez gain, Astigarragaren desanexioaren osteko herrigintzan ere paper handia izan zuen Zipotzak. Herrian

erreferentzia handia hartu zuen zentzu horretan. “Politikan ez ezik, herriko arazoetan ere eragile bihurtu zen”, gogoratzen dute. Gainera, kulturako inizatiba berriei ekin zitzaion: Kalderero Eguna, mendi bizikleta martxa, mendi irteerak... Zipotza herritarren bilgune izatera pasatu zen. Gaur egunera arte herriko eragileen bilgune izaten jarraitu du, gazte asanblada, Gure Esku Dago; bilerak egiteko zen materiala gordetzeko.

Bere sorreratik gaur egunera arte, elkarte guztiek bezala, gorabeherak izan ditu Zipotzak. Talde eragilekoen aldaketak, tabernaren gorabeherak, kultura aldetik aktiboago edo apalago... Eta gogorren herriko tabernen auzia. Ixteko mehatxupean egin behar izan ditu urte batzuk eta horrek zuzenean eragin du elkartearen egunerokotasunean.

Herriari bizia emateko sortu zen Zipotza, eta oztopoak oztopo, gaur egun ere helburu horri begira ari dira lanean elkartearen kideak.

Zipotza cumple 40 años

La Asociación Zipotza nació en 1985 con el objetivo de dar vida al pueblo; desde entonces ha ofrecido una amplia oferta cultural.

Los que estuvieron en los primeros años de Zipotza lo recuerdan así: “teníamos claro que había que ser un lugar abierto para la ciudadanía, pero también teníamos claros los valores: el euskera, los temas sociales y la situación de las mujeres”. Además, era la única sociedad en el pueblo a la que las mujeres podían acceder.

Zipotza también jugó un papel importante en la construcción del pueblo tras la desanexión de Astigarraga, y se pusieron en marcha nuevas iniciativas culturales: Kalderero Eguna, marcha en bicicleta de montaña, salidas al monte... Zipotza pasó a ser un punto de encuentro.

Ha tenido que pasar varios años bajo la amenaza del cierre por el sumario de las herriko taberna, a pesar de las dificultades, sigue trabajando para que Astigarraga sea un pueblo vivo.



Zipotza: “Talde eragilea berriro hasiko gara lurra mugitzen, hazi berriak ereiten, eta aterako dira proiektu berriak”

40. urtebetetzea ospatzeko astebeteko programazioa lantzen dabil Zipotza Elkarte, azaroaren 10eko asterako. Gaur egungo zuzendaritzako kideekin bildu gara, urteurrenez eta elkartearen nondik norakoez hitz egiteko.

Zorionak, 40 urte beteko ditu azaroan Zipotzak. Nola ospatuko duzue?

Azaroaren 10eko astean egingo ditugu ospakizunak. Gastronomiarekin lotutako zerbitu, Palestinako egoeraz hitzaldia edo liburu aurkezpena, pintxo-potea, mendi buelta egingo dugu Astigarragako mugetatik eta Zipotzako ikurrak jarriko ditugu bi mendi puntetan, herri bazkaria...

Elkarte bizia zarete; herrian hainbat gauza antolatzen dituzue.

Bai, bere gorabeherekin. Orain aste gutxi sagardo proba-eta egin zirenean, pintxoak saldu genituen, betiko moduan. Horrez gain, kaldereroak, Olentzero, bertso-afaria... antolatzen dira urtero. Astigarragako jaietan bokatak eskaintzen dira eta elkartasun bazkaria ere egiten da. Aurten horixe izan da gutxi gorabeherako dinamika, ez dago egon kristoren mugimendua.

Urte batzuk mugimendu gehiagokoak izan dira?

Bai... Pandemiaren ostean egon ziren momentu batzuk mugimendu gehiagorekin. Ostegunetan sukaldari profesionalak etortzen ziren pintxoak egitera pintxo-potera edo ostiraletan eguneko platera ematen genuen. Orain batzarkide berriok hartu dugu Zipotzako kudeaketa eta gehiago gaude horrek eskatzen duenera, hau da, taberna, elkarte, diru-kontu, langileen kudeaketa... ekintzetara baino. Momentuko beharrak hori eskatzen du. Nahiz eta helburua izan Zipotza kultur elkarte bezala piztea eta gauzak egitea, lehenengo egin behar dugu hau eta ondoren bestea. Egia da, hala ere, Zipotzak herrian beti eduki duela presentzia, eta badaude ekintza batzuk Zipotzarekin lotzen direnak.

Mendi talde bat sortu zenuten orain dela urte gutxi.

Bai, 2021ean izan zen. Garai batean bazegoen mendi talde bat oso ondo funtzionatzen zuena eta pixkanaka itzaltzen joan zena. Pandemiaren ondoren, ideia

proposatu zen eta federazioan sartu ginen. Ondoren, plangintza bat egin zen. Helburua da hilabeterik behin irteeraren bat egitea. Egunpasak izaten dira, Euskal Herriko mendietara.

Elkarteak 40 urte hauetan momentuko testuingurura egokitu beharko zuen...

Bai. Orain dela 40 urte sortu zutenean, egoera politikoa ere oso ezberdina zen. Bizilagunak, herritarrek elkarte ziren, bakoitzak bere poltsikotik dirua jarri eta lokala erosi zuten. Gerora pertsona ezberdinak pasatu dira kudeaketatik, gazte asko aritu dira tabernan lanean, elkartearen sorrerarekin Astigarragan ideologia politiko bat zabaldu zen... eta gaur egun egoera oso ezberdina da. Garai bakoitzean elkarteak gorabeherak izan ditu; aktiboago, itzaliago... egon da. Herriaren isla izan da askotan.

Herriaren egoeraren isla?

Bai. Astigarragan ze herri mugimendu egon den, horrek zuzenean eragin du Zipotzan. Gero Euskal Herriak jasan duen erreprezioa Astigarragak ere jasan du. Zipotza egon da herriko tabernen auzian auziperatua, eta horrek ere eragin du bertako giroak edo proiektuak ez izatea jarraipen bat. Ziurtasunik ez izateak mugatu egin du elkartearen eta tabernaren funtzionamendua.

Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

Bakoitzak Zipotza bere helburu propioekin ikusten duela kontuan hartu behar da, baina beti ere marko baten barruan: herria euskalduntzea, gai ezberdinak lantzeko espazio bat eskaintzea beti ere ezker independentista, feminista, antirrazistaren ikuspegitik...

Zein da zuen funtzionatzeko modua?

6-8 gazte hartu dugu talde motorra kudeatzeko ardura eta astero biltzen saiatzen gara. Eta bazkideekin lantzean behin elkartu eta erabakiak hartu.



Herriko gainerako elkarteekin nolako harremana daukazue?

Zipotzako kudeaketa orain daramagunok herriko elkarteetan parte hartu dugu edo parte hartzen dugu. Eta elkarteak berak ateak ireki dizkio herri mugimenduari: gazte asanbladari, Xaguxar aisialdi taldeari, Emakumearen Etxeari... Sagardun, Gure Izarra eta herriko beste elkarteekin ere harremana daukagu.

Zuen ustez, Astigarragarentzat zer da Zipotza?

Herrian ez da baloratzen zer den Zipotza bezalako taberna bat izatea. Itxiko balitz, galduko liriteke gizartearentzat garrantzitsuak diren balore eta ideologia pila bat. Zipotza beti dago irekita norbanakoari eta taldeei. Zipotzak dauka gauza asko hobetzeko, baina horrelako gunerik ez dago herrian, eskaintzen duen guztiagatik.

Eta Zipotzak nola ikusten du Astigarraga?

Geldi. Ni Zipotza izango banintz, triste egongo nintzateke. Ez dakigu Astigarraga osora orokortu daitekeen egoera den, seguraski bai; gizarte bezala ez dugu hartzen kontzientziarik nora goazen, zertara, zergatik.... Herrian bertan ez da baloratzen ze positiboa den norbanakoarentzako eta kolektiboarentzako elkartearen ekintzetan parte hartzeak, ekintza sozialetan parte hartzeak, taldean hausnarketak egitea, gai sozialez hitz egitea, aisialdiko ekintzetan parte hartzeak....

Ezer gehitzeko?

Mezu bat bidaliko genieke Zipotzarekin bat egiten dutenei: Talde kontzientzia eta Zipotzarekiko atxikimendua berreskuratzeko unea da. Gizarte aldaketak, Zipotzaren egoerak... jendea apur bat urruntzea eragin duela uste dugu. Talde eragilea berriro hasiko gara lurra mugitzen, hazi berriak ereiten, eta aterako dira proiektu berriak.



Ergobia auzorako egitasmoak, martxan

Plaza egokitu eta estalpe bat sortuko dira laster hasiko diren lanekin; auzorako sarrera eta Grabelin 5 lokala egokitzeko proiektuak ere idatzi dituzte teknikoeek, Udalak eskatuta.

Plaza eta kioskoa

Ergobiako plazan hainbat hobekuntza egingo dira datozen asteetan hasita. Estalpe edo kiosko bat eraikiko da, eta eraikuntza horren ingurua egokitu da auzoaren bi mailen arteko haustura modu praktikoan eta irisgarrian soluzionatzeko. Gainera, plazan landareria gehituko da berro-uharte efektua murrizteko. Hori guztia Ergobiako berezko elementuak balioan jarrita egingo da.

Proiektuaren erdigunean kokatzen da kioskoa. Espazio egokia izango da musika edo beste edozein ikuskizun eskaintzeko, eta aldi berean, egunerorako espazio erabilgarria izango da. Agertoki bezala erabiltzeko 6x6 metroko espazio karratu bat aurreikusten da, eta estalkiaren tamaina 9x9 metro ingurukoa da.

Estalkiaren hiru puntu nagusiek triangulu aldeide bat osatzen dute, eta lurrari eusten dioten zutabeak

hiru harriren gainean jarriko dira, idi-probetako harrien antzekoak.

Auzoaren bi mailen arteko hausturari irtenbidea bilatzeko, honako galdera honi erantzuten saiatu dira teknikariak: nola lortu haurrek, nagusiek, gurgildun-aulkien erabiltzaileek, itsuek, kotxetxoekin doazen gurasoek, gazteek, laguntzaren bat behar dutenek eta gainerako guztiak eroso erabiltzeko espazio bat?

Bada, proposamenak harmaila formako eskalinata bat aurreikusten du, eskailera neurri erosoekin eta, aldi berean, sigi-sagako ibilbide bat; azken horrek oso aldapa txikia duenez, irisgarritasun-araudietan arrapatat ere ez da hartzen. Ibilbidea zabala da, hainbat pertsona gurutzatzeko modukoa. Horrez gain, hegoaldeko fatxadaren ondoko ibilbidea kontserbatuko da, eskaileren jarraitutasun egonkorrekin eta heldulekuekin. Hasieran aipatutako harmailak esertzeko ere balioko dute.

Horrez gain, udako plazako tenperatura jaisteko helburuz, zuhaitzak landatu eta zoladura iragazkorra ipiniko da. Izan ere, Ergobiako plazan ez dago zuhaitzik, eta hori salbuespena da Astigarragan. Probalekua-ren alboko espazioan jarriko den zoladurak belarrak haztea ahalbidetuko du eta inguruan zuhaitzak eta landareak landatuko dira.

Azkenik, Ergobiako elementu bereizgarriak balioan jartzeko ahalegina egin da. Hain zuzen ere, "Aupa Ergobia" hitzak, kupeltxoak, diru-kutxa eta iturria ber-bertako elementuak dira, batez ere jaietan erabiltzen direnak, baita idi-probetako harriak ere, tamaina eta pisu desberdinetakoak. Bada, proiektuan elementu horiek edota beraien esanahia mantendu dira.

Auzoko sarrera

Plazan egingo diren lanez gain, Ergobia auzorako sarrera hiritartzeko proiektua ere idatzi berri da. Horren




arabera, ponpaketaren aldean dagoen espaloia handituko da, bidegorri bat jartzeko zubirantz. Gainera, sarbidearen beste aldeko espaloia berrituko da, irisgarritasun-araudia betez eta behar bezala araututako aparkalekuak gaituz.

Horrez gain, erabat berrituko da Ergobiko plazara igarotzeko eremua, besteak beste, hormigoï inprimatua jarritz. Eremu horretan, gainera, lorategi bat eta piknik motako zurezko mahai bat ipiniko dira. Grabelin kalean, lorategiz inguratutako gunea bat prestatuko da eta saretadun zoladuraren gainean ere aparkatzeko plazak proposatzen dira.

Eremu ilunak argitzeko farolak jarriko dira eta euri-urak biltzeko sarea ere urbanizazioaren altimetria berri-egokitu dira. Azkenik, jarduketa eremu osoan hiri-altzari berriak jarriko dira, eta, gainera, zuhaitz-unitate batzuk landatuko dira.

Grabelin 5 lokala

Garbelin 5 lokala egokitzeko proiektua ere idatzita dago. Erabilera antzeko lokala izango da: besteak beste, areto bi izango ditu 56,43 eta 198,37 m²-koak. Auzotarren erabilerarako gunea ere izango da. Hemen behean ikus ditzakezue planoak eta datuak.



AZALEREN TAULA / CUADRO DE SUPERFICIES

BEHEKO SOLAIRUA / PLANTA BAJA

SARRERA	32,45 m ²
ATONDOA	15,78 m ²
KOMUNA 1	5,37 m ²
KOMUNAUERRA	5,07 m ²
KOMUNA 2	5,26 m ²
ARETO TXIKIA	56,43 m ²
ARETO HANDIA	198,37 m ²
BILTEGIA	6,29 m ²
INSTALAZIO GELA	18,44 m ²

AZAL. ERABILGARRIA / SUP. UTIL TOTAL 343,46 m²

AZAL. ERAIKITA / SUP. CONSTRUIDA TOTAL 368,69 m²

En marcha los proyectos del barrio de Ergobia

Próximamente se iniciarán los trabajos para acondicionar la plaza y construir un quiosco; además, se han redactado otros dos proyectos para mejorar el acceso al barrio y adecuar el local de Pagooga.

En la plaza de Ergobia se realizarán varias mejoras a partir de las próximas semanas. Se construirá un quiosco de 6x6 con un cobertizo de 9x9, cuyo entorno se acondicionará para resolver de forma práctica y accesible la ruptura entre los dos niveles del barrio. Además, se añadirá vegetación en la plaza. Todo ello con la puesta en valor de los elementos propios de Ergobia.

Se ha redactado un proyecto de urbanización del acceso al barrio de Ergobia, en el cual se recoge la ampliación de la acera existente en la zona de bombeo hacia el puente para la implantación de un bidegorri. También se recoge la renovación de la acera del otro lado del acceso, cumpliendo la normativa de accesibilidad y habilitando los aparcamientos debidamente regulados. También se ha redactado el proyecto para el local Grabelin 5, en el que se recogen varios espacios entre ellos dos dos salones de actos y espacio para los y las vecinas de Ergobia.

Etkez etxeko zerbitzua, pertsonari arreta zuzena ematen

Etkez etxeko zerbitzuaren helburua erabiltzailea ahalik eta denbora gehien etxean bertan mantentzea da, eta horretarako, erabiltzailearen beharretara egokitzen dira etkez etxeko langileen eginbeharrak. Modu horretan, erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzen da, etxebizitza utzi beharrik gabe, eta beraien familiakoei ere zaintza lane-tan laguntzen zaie.

Zerbitzua bi alor nagusitan ematen da: zerbitzu domestikoa eta pertsonala. Domestikoa barruan etxeko lanak egiteko zerbitzua (oheak egin, garbiketa lanak...) eskaintzen da. Pertsonalaren barne daude, bestalde, erabiltzaileen garbiketan laguntzea, janztea, bazkaria egitea edo eguneko zentzura joateko anbulantziara laguntzea, adibidez.

Bi alor nagusi horiek batzuetan batera ematen dira, hau da, zerbitzu mistoa behar duten pertsonari, bai domestikoa baita pertsonala ere, batera eskaintzen zaizkie.

Goraka doan zerbitzua

Etkez etxeko zerbitzua ezintasuna dutenei eta 65 urtetik gorako helduei zuzenduta dago. Gaur egun 20 era-

biltzaile daude Astigarragan, guztiak 65 urtetik gorakoak. Hala ere, oso premia ezberdinetako jendea da: batzuek astean behingo zerbitzuarekin nahikoa dute; beste batzuek egunero behar dute zerbitzua ohetik jaikitzen laguntzeko, adibidez.

Azken urteotan, erabiltzaile kopuruaren joera goranzkoa izan da. Izan ere, kontuan hartu behar da gero eta pertsona nagusi gehiago dagoela, eta beraz, zerbitzu horien premia handitzen doala. Hala ere, aurtengo lehen seihilekoan aurreko urteetan baino erabiltzaile gutxiago edukitu du zerbitzuak.

Astigarragan Arreta Zerbitzuak enpresa arduratzen da etkez etxeko zerbitzua emateaz.




Ayuda a domicilio en Astigarraga

El servicio de ayuda a domicilio tiene como objetivo mantener al usuario el mayor tiempo posible en su hogar. De esta manera, se mejora la calidad de vida de los usuarios, sin necesidad de abandonar la vivienda, y se ayuda a sus familiares en las tareas de cuidado.

El servicio se presta en dos áreas principales: servicio doméstico y personal. Estos dos servicios se ofrecen de forma conjunta a las personas que requieren un servicio mixto.

El servicio a domicilio está dirigido a personas con discapacidad y a personas mayores de 65 años. Actualmente hay 20 usuarios en Astigarraga, todos ellos mayores de 65 años. En Astigarraga es la empresa Arreta Zerbitzuak la que se encarga de la prestación del servicio a domicilio.

Erabiltzaileak



2025*: Lehen seihilekoaren batz bestekoa.

Xabier Urdangarin
EHBildu

Behin betiko neurriak behar ditugu eta ez tarteka zerbitzuren bat indartzea

Foru Aldundiak autobus zerbitzua indartzeko neurri batzuk hartu ditu, baina gure ustez ez da nahikoa inondik ere, izan ere, oinarritzko zerbitzua ez dago ziurtatuta.

Bi gauza behar dira: batetik, BU12 eta BU13 lineak indartu eta, bestetik, ospitalera eta unibertsitateera joateko zerbitzu zuzena jarri.

BU12 eta 13a indartu: urtean zehar askotan geratzen da jendea geltokian autobusera igo ezinik, astigarrak atzerago dauden geltokietara joaten dira lekua ziurtatzera, ordu-tegiak gehiegitan ez dira betetzen, autoibusa sarri oso beteta iristen da azken geltokira eta adineko pertsonentzat bidaia ez da segurua, zutik joan behar dutelako eta autobusaren abiadurak eta biribilguneek zenbaitetan bidaia arriskutsu ere bihurtzen dutelako. Linea horien maiztasuna hobetu behar da eta autobusak Astigarragatik abiatu behar du, kalitatezko zerbitzua jasotzeko.

Ospitalera eta unibertsitateetara joateko autobus zerbitzu zuzena behar dugu, linea berria jarrita nahiz daudenak moldatuta, baina BU12 eta 13a murriztu gabe. Donostialdeko, Orarsoaldeko eta Buruntzaldeko herri guztiek dute ospitaleetara zerbitzua. Astigarragak ez. Noiz arte?

Kalitatezko autobus zerbitzua eskaintzeko baliabide gehiago jarri behar ditu Aldundiak eta arazoari behin betiko irtenbideak eman behar dizkio.

Maria Otaegi
EAJ-PNV

Ale honetarako EAJ-PNVk ez du iritzirik bidali.

Patxi Suarez
PSE-EE

Autobus zerbitzua

Astigarragako PSE-EEren bozemaile bezala, egunero egiaztatzen dut zein garrantzitsua den garraio publiko eraginkorra eta herritarren benetako beharretara egokitua.

Lurraldebusen lineek funtsezko zeregina dute, eta Mugikortasun Sailarekin etengabe izandako elkarrizketari eta herritarren lankidetzari esker, berehalako errefortzuak eta edukieran eta ordutegietan hobekuntzak lortu ditugu.

Espero dut Sailak laster irtenbide bat aurkitzea gure herria ospitaleekin eta unibertsitateekin lotzeko, eta Udalak barne-joan-etorriak erraztuko dituen hiri-garraioa ezartzea; izan ere, sozialistak bezala, mugikortasun jasangarria osasuna, hezkuntza, aisialdia eta enplegua bermatzen dituen eskubide gisa ulertzen dugu.

Como portavoz del PSE-EE en Astigarraga, constato cada día la importancia de un transporte público eficaz y adaptado a las necesidades reales de la ciudadanía.

Las líneas de Lurraldebus juegan un papel esencial, y gracias al diálogo constante con el Departamento de Movilidad y a la colaboración ciudadana, hemos conseguido refuerzos inmediatos y mejoras en capacidad y horarios.

Confío en que el Departamento encontrará pronto una solución que conecte nuestro municipio con hospitales y universidades, y que el Ayuntamiento implante un transporte urbano que facilite los desplazamientos internos, porque como socialistas entendemos la movilidad sostenible como un derecho que garantiza sanidad, educación, ocio y empleo.

Urriak 31

Gau Beltza | Ospakizuna

URRIAK 25 larunbata

17:00 | Erribera kulturgunean

GAU BELTZEKO ESKULAN TAILERRA ETA JANTZIEN ERAKUSKETA

URRIAK 31 ostirala

18:00 | Foru plazan

MAKILATZEKO TAILERRA ETA PHOTOCALL-A

19:30 | Murgiatik abiatuta

KALEJIRA

Kalejiran danborra jo, antortxa eraman eta arima gisa parte hartzera animatu eta idatzi: astiarrakogaubeltza@gmail.com.

Bukaeran | Foru plazan

BELDURREN ERRETZEA, koplak eta mokadutxoa

